

EUSKARA

UNE MUSIQUE INTÉRIEURE

(Jokabidea,

hizkuntza, ahotsa

eta barne-entzumena)

Erakusketa, performanceak
eta hitzaldiak
Otsailak **18** - Apirilak **24**, 2022

Milan Adamčiak
Amable Arias
Eva Barto
Delia Gonzalez
Daniel Grůň
Alvin Lucier
Mattin
Pauline Oliveros
Georgia Sagri
Matthieu Saladin
Erik Satie
Scratch Orchestra
Serapis Maritime
Cally Spooner
Vier5

Komisarioa: Pierre Bal-Blanc
Oier Etxeberriarekin elkarriketan

Serapis Maritime, HSOR59

Sublimazio bidezko inprimatzea oihal gainean, betegarri
sintetikoa, 200 x 145 x 5 cm.

Solo - Nature Study Notes - 1969-2019 [Athens Version] 2021

Georgia Sagri, Delia Gonzalez, Serapis Maritime eta Pierre
Bal-Blanc. Hot Wheels Athens, 2021.

Argazkia: Konstantinos Andrikoulas.

A photograph of a wooden floor with a black strip of tape containing the text "function of discontent." The floor is made of light-colored wood planks, and the tape is placed horizontally across the middle of the frame. In the background, a white wall and a white electrical outlet are visible. The text is written in a white, serif font on the black tape.

function of discontent.

Une musique intérieure erakusketak 1960ko eta 1970eko hamarkadetako arte kontzeptualaren ondaretik eratorritako zenbait erabilera esploratzen ditu. Praktika horren ezaugarri nagusia izan zen artistei ekoizten jarraitzeko estrategiak eta metodologiak bilatzea, norbanakoarengandik subjektu atomizatu gisa jasotako adierazpenaren ideiatik harago.

Estrategia horietako asko ziren artista bihurtzea joko-arau, ariketa eta jarraibide gutxi gorabehera sistematikoak ezartzen dituen pertsona. Hortaz, produkzioa edo arte-objektua aurretik ezarritako partitura eta ohar batzuen jarraipenaren ondorioa zen.

Ikuspegi makiniko bat hartuta poesiaz jabetzeko ideia hori garai bati erantzuteko modu bat zen, non gizakiaren barne-mundua merkataritza-helburuekin esploratzen hasten baitzen, hein handi batean lortutako garapen teknologiko eta zientifikoari esker. Garai horretan, halaber, arte-ekoizpen eta -harrera kolaboratzailearen ideia nabarmentzen hasi zen kultura kontsumista mainstreamaren alternatiba gisa. Baina kapitalismo digitalaren etorrerak ondare hori berrikusi beharra ekarri du, prozesu artistikoetan parte hartzeak eta elkarreraginak zer esan nahi duen berriz pentsatu eta eztabaidatzeko beharra.

Garaiko partitura enblematiko batzuen irakurketa garaikidea garatzearen bidez, erakusketa honetako lanek gure pertzepzio-sistemak hezteko erabili diren ohitura eta automatismoei aurre egiten diete. Gaur egun, inoiz baino beharrezkoagoa dirudi berriro galdetzeak artearen eta bizitzaren, musikaren eta zarataren, barnekotzat eta pertsonaltzat hartzen ditugun espazioen nahiz politikaren eta mundu komun batean parte hartzearen artean ezarritako mugei buruz.

Oier Etxeberria

Tabakalera

Donostia

2022ko otsaila

UNE MUSIQUE INTÉRIEURE

(Jokabidea,
hizkuntza, ahotsa
eta barne-entzumena)

Une musique intérieure erakusketak zalantzan jartzen ditu gure jokabidea, hizkuntza eta ahotsa, barne-entzumenaren oreka edonork zalantzan jarriko lukeen bezala; hau da, kanpoko munduarekin dugun harreman intimoa egonkortzen duten tresna gisa duten zeregina jartzen du zalantzan.

Erakusketaren abiapuntua *Solo - Nature Study Notes - 1969-2019 [Athens Version] 2021* performancearen interpretazioa da. Atenasen egon ondoren Donostian beste ikuspuntu bat aurkitu nahi du norbanako memoriaren eta memoria kolektiboaren arteko harremanaz hausnartzeko. Pieza honek, beste obra eta esku-hartzeekin batera, publikoa bere barne-musikarekin duen harremana aurkitzera bultzatzen du. Obra kolektibo honen bigarren emanaldiak ekintza bera gertatzen den markoaren inguruko problematika planteatzeko balio du.

Tabakalerako erakusketak testuinguruan arreta jartzen aitzindariak izan ziren konpositoreen partiturak ekartzen dizkigu gogora, esaterako: Alvin Lucier (*Chambers*, 1968), Pauline Oliveros (*Deep Listening*, 1989) eta Milan Adamčiak (*Floor scores*, 1967). «Arau sozialek barnekotasuna kolonizatu dute», adierazi zuen Erik Satiek *Musiques d'ameublement (Carrelage phonique*, 1917) obran. Erakusketa hau ganbera-musikaren kontzertu baten moduan proposatzen zaie ikusleei eta xede hori Amable Arias tokiko artistaren edo sortzaileen belaunaldi berri baten (besteak beste, Eva Barto, Mattin, Matthieu Saladin eta Cally Spooner) obren bidez betetzen du, determinismoaren plano politiko berean eta tresnen alderdi bikoitza erakutsiz: alderdi musikala nahiz manipulazio-tresna gisa duten izaera.

Une musique intérieure erakusketa *Solo - Nature Study Notes - 1969-2019 [Athens Version] 2021* partitura aktibatzeako esparru berria da. Hori Georgia Sagri, Delia Gonzalez eta Serapis Maritimerekin lankidetzan interpretatu zen 2021eko udaren hasieran. Partitura hori Grezian idatzi zen, 1960ko hamarkadaren hasierako Scratch Orchestra talde britainiarraren kode irekiko printzipioetan oinarritutako inprobisazio-errituetan oinarrituta (prosako jarraibideak). Hot Wheels Athens galeriako erakusketa-espazioaren planoan aktibatu zen obra lehen aldiz, eta lerro batez marraztu da Tabakaleran. Horrez gain, obraren topografia berria Serapis Maritimek performancerako berariaz diseinatutako jantzien bidez ere gauzatuko da; izan ere, jantzieta galeria greziarraren irudiak eta errituen ahozko argibideak inprimatu dira. *Solo - Nature Study Notes - 1969-2019 [Athens Version] 2021* obrak banakakoaren eta kolektiboaren arteko harremana aztertu nahi du. Partiturak zenbait erritu aktibatzea proposatzen du, pertsona baten arroparen bidez (interprete bakarra). Pertsona horrek jarraibideei bizitza emango die, eta, hala, zalantzan jarriko du norbanakoaren prestakuntza somatikoan gizarte-gorputza eraikitzearen arteko harremana.

Pierre Bal-Blanc

Pierre Bal-Blanc, Delia Gonzalez, Serapis Maritime eta Georgia Sagri

Solo - Nature Study Notes - 1969-2019 [Athens Version]

2021 Scratch Orkestraren *Improvisation Rites* 1969 obran oinarritutakoa

2021

Performancea

Solo - Nature Study Notes - 1969-2019 [Athens Version] **2021**

OTS 18 18.00-18.45

Q Lau Pareta

2021eko udan, ostiral gauero, Hot Wheels Athens galerian hainbat performance egiten ziren. *Solo - Nature Study Notes 1969-2019 [Athens Version]* 2021 Pierre Bal-Blancekin lankidetzan konposatutako partitura bat da, eta Atenasko hainbat artistek hartu zuten parte hori osatzeko, bakoitzak bere diziplinan -Georgia Sagriren performance bat, Delia Gonzalezen musika eta Serapis Maritimaren arte- eta moda-kolektiboaren arropa-. Bal-Blancek bere egin zuen Cornelius Cardew-ren *Nature Study Notes* (1969) egitura, konpositore ingelesak Scratch Orkestrarako (musika esperimentaleko taldea, horren sortzaileetako bat izan zen) sortutako «inprobisazio-errituen» seriea. Cardewren errituek taldean inprobisatutako musika-interpretaziorako proposamen, arau eta murrizketa gisa funtzionatzen dute. Cornelius Cardew banaketa artistikoaren demokratizazioaren aldekoa zen eta zehaztu zuen *Nature Study Notes* ez zela inolako eskubiderik gordetzen erritu-liburu horren gainean, eta edukia askatasunez erreproduzitu eta interpreta zitekeela.

Performanceak hainbat galdera garrantzitsu proposatzen ditu, ekonomia artistikoen birbanaketaren ingurukoak: Zenbateraino da erronka erakundeentzat haien mende dagoen artelan kolektibo bat ugaltzeko eta hedatzeko? Artelanez nola berrezar dezakete kolektiboki gardentasuna haien ekoizpen-baldintzetan, kapitalaren zirkulazioak maiz opakuak izatea eragiten badu? Nola sor ditzakete artistek banaketa publikoko modu berriak taldean? *Solo - Nature Study Notes 1969-2019 [Athens Version]* 2021 zalantza horietan murgiltzen da eta gizarte-aginduak zalantzan jartzeko erritu kontzeptualistak berrezartzen ditu. Kontzeptualismoaren jatorri politikoetatik abiatuta, erakusketako dramaturgia eszentrikoak erritu berriak biltzen ditu, erakundeak nahasteko eta kolektiboaren bizitza barrutik sustatzeko.

(Carlos Kong-en erreportaje baten zatia, Hot Wheels Athens, 2021eko uda)

Milan Adamčiak

Floor Scores

Markoztatutako partiturak

1967

Partitura horiek nire musika-geletako proiektuekin lotuta sortu nituen. Izan ere, lehena alfonbra gisa diseinatu nuen *Dislocation II* in Smolenice aurkezteko. Beste batzuk urte luzez gorde nituen ohar grafiko gisa, etorkizunean erakusketa-espazioetan plano moduan gauzatzeko. Nitrianska galerian (Eslovakia, 2001) egin nuen erakusketan, lurreko partiturak erakusteko hondoko espazioak erabiltzeko aukera eman zidaten. Hala, *Dislocation III* aurkeztu nuen, xakean zaldien modura mugitzen ziren bi interpreterekin; horrez gain, *Mill* ere aurkeztu nuen, errotaren joko ezaguna, musikagelaren proiektu bihurtuta. Koloretako zinta itsasgarria eta kartoizko tarteko produktuak erabili nituen grafema gisa (edontzi-azpikoak eta kartoizko ebakin angeluzuzenak, notograma marraztuekin). Era berean, Eslovakiako Povaéská de Éilina galerian, zinta itsasgarrez instalatu genituen *Ordination III* eta *Nurseries* lurreko partiturak, eta aukera eman zitzaizen ikusleei horietan latako tapekin jolasteko. Cik Cak Centrum zentroan (Bratislava, 2001), zinta itsasgarria erabili genuen Spider Webs partitura instalatzeko, abeslarienezako areto-jokoa. Irekieran, hainbat atal interpretatu ziren. Erakusketa horretan bertan, dantza balkanikoen partiturak aurkeztu genituen, inpresioen bazterkinekin collage handien itxura zutenak. *Diamond Dance* (1967) partitura dantza eta musika (2009) zuzenean interpretatzeko sortutako alfonbra-seriea erabilia gauzatu zen.

Milan Adamčiak

Amable Arias (Maru Rizo-ren laguntzarekin)

Espazio poetikoak (5, 6, 10, 14, 18, 19 zenbakiak)

Obra fonetikoak + dokumentazioa

1981

Era askotako materialak lantzeko eta manipulatzeko orduan duen sentikortasun poetikoagatik ezaguna den artista polifazetikoa da Amable Arias (Bembibre, 1927 - Donostia, 1984). Zalantzarik gabe, artistak irudi horren ondarea berriro aztertu eta berrikusteko aukera ematen du, hainbat ikuspegitatik.

Proiektu honetan parte hartzean, espazioaren ideiarekin lotutako soinu-ariketak egin behar dira. Duten forma eskematikoagatik buruz ikasteko errazak diren gutxieneko gidoietatik abiatuta, artistak hainbat espazio-zatiri egin behar die aurre, ahotsa eta enuntziazioa baliatuta.

Batzuek osotasun gisa aurkezten dute mundua, baina pieza hauetan askotan zoriak eragindako eta mihizatutako bat-etortze eta keinu susmagaitz askoren multzo gisa ulertzen da. «Espazio poetikoek» poesia-praktikak parte-hartzaileak konprometitzeko eta jolasean integratzeko ematen dituen aukeren berri ematen digute, ziurtasun edo trebetasun teknikoetara jo beharrik gabe.

Eva Barto

Latecomer's overtimes

Protokoloa eta markoztatutako argazkiak

2018 - gaur arte

Latecomers 's overtimes lanak kontrolaz dihardu. Erloju batean egindako eragiketa bat da; erlojugile batek mekanismoa aldatzen du, egunero minutu batez atzeratzeko. Atzerapena areagotu ahala, erakunde baten irekiera-ordutegia, langile baten puntualtasuna, ekitaldi baten egutegia, epemuga bat, webgune baten iraunkortasuna (testuinguru bakoitzak atzerapen espezifiko bat dakar eta, ondorioz, denborarekin lotutako egoera zehatz baten aldaketa). Une horretatik aurrera, proiektuarekin lotura duen pertsona batek eramango du erlojua. Atzerapena hainbat aldiz aktibatu daiteke eta hainbat modutan. Aktibazio bakoitzaren amaieran, atzerapena ezeztatu egiten da, erlojua ordu egokian jartzen da eta gorde egiten da.

Adibidez, artistak 2018an Düsseldorfen parte hartutako erakusketa kolektibo batean, galeristak zeraman erlojua egunero hainbat minutu atzeratzen zen. Ondorioz, Max Mayer galeria igandean ireki behar izan zuten, eta hori legez aurkakoa da Alemanian.

Une musique intérieure erakusketan, erlojua erakusketako komisarioak eraman du, eta egunero 5 minutu atzeratzeko programatu zen *I GOT UP* aurreko erakusketan, 2021eko urrian, Parisen. Komisarioak ez zion erlojua eramateari utzi, eta hainbat lanetara berandu iristen hasi zen. Inolako zalantzarik gabe, gauza bera gertatuko da hurrengo erakusketan; 2022ko martxoan estreinatuko da Ostravan (Txekiar Errepublika) eta bertan amaituko da Eva Bartoren obra honen aurkezpena.

Delia Gonzalez

Solo – Nature Study Notes – 1969-2019 [Athens Version]

Audio-artxiboa

2021

Performancea

**Erik Satie Musique
d'ameublement
(Furniture Music),
Delia Gonzalezek
interpretatuta**

OTS 19 11.45

Q Z aretoa

DFA diskoetxea ezagutzen dutenek Delia Gonzalez ere ezagutuko dute. Delia Miamitik New Yorkera bizitzera joan zen 1990eko hamarkadaren erdialdean, eta gerrillako dantza-talde eta antzerkitan lan egin zuen. Garai hartan, Gavin Russom sintetizatzaileen azitia ezagutu zuen, eta horri esker diziplina anitzeko hainbat lankidetzak sortu ziren. DFA diskoetxearekin egindako lehenengo lana 2003koa da, *El Monte*, eta konpainia berriak abangoardiaren eta etengabeko hedapenean zegoen indie rockaren munduaren arteko arrakala ezabatzeke zuen gaitasunaren erakusketa goiztiarra izan zen.

In Remembrance Deliaen bilaketa artistikoaren hurrengo emaitza izan zen. Proiektua 2010ean sortu zen, Napolesko Fonti galerian (Italia) egindako eta izen bereko banakako espektakulu gisa. Ondoren, 2012an pieza gehiagorekin gauzatu zen Kolonian (Alemania), *I Must Not Stop To Rest Here* erakusketaren parte gisa. Halaber, proiektua Zürichen erakutsi zen ondoren. Bi erakusketak 16 mm-ko lau pelikularen inguruan osatu ziren, Gonzalezek sortutako musikarekin egindako ballet koreografiekin. «Obrak inspirazioaren sentsazio iragankorra birsortu nahi du. Gogoia bat-batean argitzen zaigun momentu sakratu hori, zer sortu eta izan nahi duzun ikusten duzun momentua», azaldu zuen autoreak.

Daniel Grůň

Hitzaldia

MAR 17 18.00-19.00

EN > EU+ES

📍 Z aretoa

Prozesu akustikoaren, performancearen eta idazketaren esfera autonomoaren arteko musika bisuala.

Alvin Lucier

Chambers 1968

Performancea

2022

Performancea

**Alvin Lucierren
Chambers**

OTS 18 20.00

📍 Lau Pareta

Ingurune distiratsu finkoen soinuak, hala nola zisternak eta tunelak, beste leku batzuetara eraman daitezke, barrualdera edo kanpoaldera, irrati edo telefono bidezko grabazio edo transmisioen bidez.

Barrualdera eramaten direnean (adibidez, antzoki bat ohe batera), orain eramangarriak diren ingurune distiratsuetako soinuak nahastu egin daitezke edo barne-inguruneko soinuei gainjarri. Aldiz, kanpoko espazioetara eramaten direnean (adibidez, galdara bat parke batera), ingurune distiratsuen soinuak ingurune eramangarri originaltzat har daitezke.

Material eta prozedura horien nahasketak erabil daitezke. Edozein soinuren edozein ezaugarri handitu edo murriztu daiteke.

«Gela batek bere nortasuna islatzen badu bertan gertatzen den edozein soinutan, edozein ingurunek gauza bera egin dezake. Beraz, interpretatzeko modu gisa, erabaki nuen interpreteek objektu distiratsuak bildu eta soinuak sar zitzaketela, objektu horien ezaugarri akustikoek (maskorrak, lapikoak, zartaginak, etab.) soinuak alda zitzaten».

Alvin Lucier (Hitzezko partituraren zatia).

Mattin

Expanding Concert

Fotokopiatutako testu eskuragarria

2019-23

Performancea

Descifrando la disonancia social

OTS 19 12.05-12.30

📍 Z aretoa

Expanding Concert bost urteko kontzertua da, denboran eta espazioan hainbat bitartekoren bidez banatua: 5 esku-hartze publiko Lisboako Galeris Municipais galeriako 5 espazioetan eta 5 testu. Kontzertuak deiaren nozioa eta erantzuna inprobisazioaren modu zabalagoan aztertzen ditu: esku-hartze publiko bakoitza dei-modu bat da. Erantzun gisa, idazle bati ekitaldira joateko eta ondoren hari buruzko testu bat idazteko eskatzen zaio. Erantzunen helburua da esku hartzeko testuinguru bat eskaintzea, Lisboako une horretako egoera artistiko, politiko eta ekonomikoari dagokionez. *Expanding Concert* kontzertu inprobisatu luzea da, eta, gauzatzen den bitartean, bere egoera historikoari buruz hausnartzen saiatzen da. (<https://galeriasmunicipais.pt/en/programa-publico/expanding-concert-3/>)

Expanding Concert kontzertuaren 2021eko edizioan (Lisboa 2019 - 2023) Mattinekin hartu zuen parte Margarida Garcia eta DJ Marfox artistekin, irailaren 19an Avenida da Índia galerian. Erantzunaren testua Pierre Bal-Blanc jaunari agindu zitzaion, eta *Une musique intérieure* erakusketarako argitaratu da, 2022ko *Expanding Concert* kontzertuaren laugarren edizioaren aurrerapen gisa.

Pauline Oliveros

Sonic Meditations

Partiturak (hormako letra binilikoak)

1971

Performancea

The Greeting

(Pauline Oliveros)

Mattinek zuzenduta

OTS 19 11.00

📍 Z aretoa

Sonic Meditations taldean erabiltzeko sortu dira, epe luze batean, ohiko bilerekin. Parte-hartzaileek ez dute trebetasun berezirik behar. Konpromisoa hartzeko prest dagoen edonork har dezake parte. +* Ensemble-ko kideek (haiei zuzenduta daude meditazioak) ondorioztatu dutenez, hitzezkoak ez diren bilerek meditazioaren emaitzak areagotzen dituzte eta meditazioa praktikatzeko giro egokia sortzen laguntzen dute. Etengabeko lanarekin, *Sonic Meditation*sek jarraian aipatzen diren gauzetako batzuk lortzen ditu: ezagutza handiko egoerak edo kontzientzia hedatua, tentsio eta erlaxazio ezagun eta ezezagunen ondoriozko aldaketa fisiologiko eta psikologikoak, pixkanaka iraunkor bihurtzen direnak. Aldaketa horiek gorputzaren eta adimenaren doikuntza irudika dezakete. Taldeak esperientzia gutxien dutenengan eragiteko moduko energia positiboa gara dezake. Taldekideak gainerakoekiko kontzienteagoak eta sentikorragoak izan daitezke. Musika jarduera honen ongietorri-azpiproduktu bat da.

Sonic Meditation bakoitza prozedura berezi bat da honako honetarako:

1. Soinuak ekoizteko
2. Soinuak aktiboki irudikatzeke
3. Egungo soinuak entzuteko
4. Soinuak gogoratzeko

(Pauline Oliverosen partituraren sarrerako zatia)

Georgia Sagri

Solo - Nature Study Notes - 1969-2019 [Athens Version], 2021

HD Bideoa, 44'14". Georgia Sagriren performancea Pierre Bal-Blancek Hot Wheels Athensen komisariatutako erakusketan zehar jasotakoa Delia Gonzalez eta Serapis Maritimekin batera. 2022

Irakurketa

Stage of Recovery:

Occupy

Georgia Sagri

OTS 19 12.35-13.00

Q Z aretoa

Georgia Sagri (1979, Atenas, Grezia) performancea, eskultura, bideoa eta baliabide digitalak, instalazioa, idazketa eta marrazketa lantzen dituen artista da. Bere katalogo monografikoa Sternberg Press argitaletxeak argitaratu zuen 2018an eta bere Stage of Recovery liburua Divided Publishing argitaletxeak argitaratu zuen 2021eko udaberrian. Interpretazioko irakasle titularra da Atenasko Arte Ederren Eskolan.

Matthieu Saladin

L'écart toutes choses égales par ailleurs

Instalazioa

2019

Hitzaldia

Espazio durunditsuak

eta dessubjektibazio-

prozesua Alvin

Lucierren obran

OTS 19 11.15-11.45

FR > ES+EU

Q Z aretoa

L'écart toutes choses égales par ailleurs (arrakala baldintza-berdintasunean) erakusketa-espazio batean dago, eta bere argiztapena portzentajezko tasa batean murrizten da. Tasa hori gizonen eta emakumeen arteko «diskriminazio hutsetik» datorren soldata-arrailari dagokio, obra hau aurkeztu den herrialdean berriki egindako inkesta batek erakusten duenez. Indize hori kalkulatzeko, «lanbide-arloetako enplegatuen eta lanpostuen ezaugarri behagarri berdin-berdinak» erabiltzen dira. Erakusketa-espazioaren argiztapenaren manipulazioa ia hautemanezina da, baina nonahikoa. Espazioen eta espazioetan egon daitekeen presentziaren pertzepzioa baldintzatzen du. Obra hau lehen aldiz Toulouseko BBB arte-zentroan aurkeztu zen 2019an.

Erik Satie

Furniture Music

Partitura eta *Vier5*-ek diseinatutako paper margotua
1918

Erik Satiek idazten hasi zenetik kezkatzen zuten ideien berri eman zuen *Furniture Music* lanean, baina oraingoan helburu funtzional baterantz zuzendu ditu. 1890eko hamarkadaren hasieran, Puvis de Chavannes-eko freskoen baretasun harmoniatsuarekiko lilura izugarria sentitu zuen, eta hortik sortu zen «musika apaingarria» konposatzeko ideia. Musikagilea, interpretea eta entzulea sinbiosi ideal batean elkartuko zituen giro-soinu baten ideiatik harago, ez zuen ezer apaingarririk pentsatu.

Platonen Elkarrizketen laburpenak kopiatzen zituen koaderno berean idatzi zituen *Carrelage phonique* eta *Tapiserie en fer forgé* lanen lehen zirriborroak. Lehenengoa, «otordu batean edo ezkontza-kontratu batean» erabiltzeko, eta, bigarrena, harrera handi bateko gonbidatuak agurtzeko «sarrera batean» interpretatzeko. Beraz, piezak funtzio espezifiko batekin diseinatu ziren. Handik gutxira, bi partiturak kontu handiz kopiatu zituen kartoizko bi pieza handitan, bere lagun artisten lanen moduan erakusgai eta salgai jar zituzten Jove jostun eta barne-diseinatzailearen aretoan.

Ornella Voltaren partituraren sarrerako zatia

Cally Spooner

Self Tracking (the five stages of grief)

Instalazioa

2016

Self Tracking (the five stages of grief) instalazioa berriz aktibatu behar den performance batekin egin zen. Piezaren lerroetako bat artistaren datu metabolikoei dagokie; bestea, Artfacts.net-eko artistaren sailkapenaren datuei; eta hirugarrena World Trusted Currency Authority-ren datuak dira, 2012 eta 2016 artean libera esterlinak euroarekiko izan zuen kanbio-tasari buruzkoak. Marra laranja bat dago tartean eta lozio autobrontzeatzailearekin markatutako marra bat, gorputz baten presentzia adierazten duena. Pieza honek artistaren nortasuna islatzen du datu objektiboen bidez. Aldi berean, datu fisiologiko hutsekin definitzen da, Artfacts.net-en informazioarekin, finantza-adierazleetara murrizten baitute, eta, azkenik, munduko testuinguru ekonomikoan kokatzen da. Lozio autobrontzeatzailez marraztutako gorputz baten presentziak kontrapuntu hauskor bat sortzea ahalbidetzen du, gizabanakoa aurrez ezarritako arauetan gordetzen duena.

Scratch Orchestra

Nature Study Notes

Fotokopiatutako eskuorria partiturekin
1918

Scratch Orchestra 1969ko uztailean sortu zen, Londresko Morley College zentroan musika-konposizioari buruz emandako klaseetatik abiatuta; bertara joaten ziren abangoardiako musikariak eta soinua esploratu nahi zuten artistak. Bere eratzeko-zirriborroaren arabera, gogo handiko talde bat da, baliabideak partekatzen dituen (ez materialak, batez ere) eta jarduteko biltzen dena (musika egiteko, antzezteko, eraikitzeko). Scratch Orkestrak, musika-maila desberdinetako kideekin, zerotik jotzen zuen bere musika, askotan idatzizko jarraibideetan eta partitura grafikoetan oinarrituta. Orkestrak udaletxe, unibertsitate, gazte-elkarte, parke eta antzokietan jotzen zuen.

Beren bizitza laburrean (1974 arte, gutxi gorabehera) izandako erregulartasuna zela eta, musika-komunitate moduko bat izan zen, esperientzia bizia, non kideek elkarrekin jo, bidaiatu eta bizi izan ziren.

Howard Slater

Vier5 & Serapis Maritime

Poster Rug

Jacquard gaineko inprimatzea
2022

Serapis Maritime arte hibridoan, diseinuan eta modan aritzen den kolektiboa da, eta hedatzea eta arte ekoizpenean eta banaketan oztopoak ezabatzea dira bere helburuak.

Obra-sorta zabala sortzen du, batez ere ozeanoen auran eta itsasoarekin lotutako industrietan oinarrituta. Bere ekoizpena itsas paisaia garaikide edo itsas gaietako eleberri gisa ere interpreta daiteke.

Vier5en lana diseinuaren nozio klasiko batean oinarritzen da: ikus-komunikazioaren esparruan etorkizunera begira dauden irudi berriak marrazteko eta sortzeko aukera. Gure lanaren beste ikuspegi bat tipografia berri eta eguneratuak diseinatu eta aplikatzea da. Vier5en helburua da bisualki hutsik dauden esaldiak saihestea eta erabilitako bitartekorako eta bezeroarentzako berariaz sortutako baieztapen sortzaileekin ordezkatzea.

Vier5

Inprimatutako poster eta panfletoak

Fotokopiak
2022

Erakusketa, performanceak eta hitzaldiak

Otsailak 18 - Apirilak 24, 2022

OTS 3-4-5

📍 Artisten Gunea

Tailerra

Chambers

Matthieu Saladin

OTS 18

📍 Lau Pareta

18.00

Performancea

Solo - Nature Study Notes - 1969-2019 [Athens Version] 2021

Georgia Sagri, Delia Gonzalez

20.00

Performancea

Alvin Lucierren Chambers

OTS 19

📍 Lau Pareta

11.00

Performancea

The Greeting (Pauline Oliveros)

Mattinek zuzendua

11.15

Hitzaldia

Espazio durunditsuak eta desubjektibazio-prozesua Alvin

Lucierren obran

Matthieu Saladin

FR > ES + EU

11.45

Performancea

Erik Satieren Musique d'ameublement

(Furniture Music), Delia

Gonzalezek interpretatuta

12.05

Performancea

Descifrando la disonancia social

Mattin

12.35

Irakurketa

Stage of Recovery: Occupy
Georgia Sagri

OTS 27

📍 1. solairuko halla

12.00

Musika

Musika dena eta eszena: Espazioetako musika

Aitor Ucar, Lourdes Higes,

Mateja Zenzerovic

MAR 17

📍 Z aretoa

18.00

Hitzaldia

Prozesu akustikoaren, performancearen eta idazketaren esfera autonomoaren arteko musika bisuala

Daniel Grún

EN > ES + EU

Komisarioa

Pierre Bal-Blanc

Erakusketaren koordinazioa

Ane Agirre Loinaz

Diseinu grafikoa

TheNiu

Artelanen manipulazioa

Onartu

Muntaia

Muntai

Ikus-entzunezko muntaia

Telesonic

Hezkuntza-programa

Artaziak

Aretoko zaintza

Ereiten Kultur Zerbitzuak

Kortesia eta esker bereziak

Alvin Lucier Estate

Thomas Boutoux

The Breeder Gallery

Durand-Salabert-Eschig

Xabier Erkizia

Hot Wheels Athens

Galerias Municipais Lisbon

Kadist Art Foundation

The Pauline Oliveros Trust

Milan Adamčiak Estate

Michal Murin

Maru Rizo

Trevor Saint

A stack of weathered, light-brown wooden planks is placed on a similar wooden floor. A black ribbon is wrapped around the middle of the stack, featuring white text. The planks show signs of age, including knots and some staining. The background shows a white wall and a white baseboard.

Regard instability as a fu

A photograph of a wooden floor with a black banner reading "unction of discontent." The banner is placed on a large, flat wooden board that is part of the floor's construction. The floor is made of light-colored wood planks. In the background, a white wall features a square electrical outlet and a grey door frame. The lighting is natural, highlighting the texture of the wood.

unction of discontent.

TABAKALERA



**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**



Andre Zigarrogileak plaza, 1
20012 Donostia / San Sebastián

Erakusketa-aretoaren ordutegia

Asteartea - Igandea

12:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00

Astelehenetan itxita

Informazioa

T +34 943 118 855

E info@tabakalera.eus

Bulegoak

T +34 943 011 311

E tabakalera@tabakalera.eus

tabakalera.eus